

Euskal Herria kristautu zenekoa

La cristianización de Euskal Herria debe entenderse como un proceso gradual y pausado, y la conversión general de nuestra sociedad, y de la geografía con sus ermitas y lugares de culto, se hizo esperar. El debate sobre la cronología de ese cambio es siempre de menor entidad, e importa más subrayar el hecho mismo, por haber diseñado el rostro social, cultural y religioso del País, al menos durante un milenio, con nuevas mentalidades y nuevos modos de vida.

Jakitunen artean, Euskal Herriaren kristautzeaz eta berorren noizkoaz eztabaida biziak ezagutu dira XX. mendean. Denbora luzez, pentsatu izan zen kristautzearen hori oso goiztarra izan zela gure artean (beharbada, III-IV. mendeetakoa), betiere Ebro-aldetik hasita. Azken hamarkadetan, ordea, urak beste nonbaitetik joan dira, gehienbat. Ikus dezagun zerbait.

Sorburuen bila

Jakina denez, herriek, estatu, erakunde eta elkar-teen beren sorburua mendeetan barrena ahalik urrunen jartzeko joera erakutsi izan dute. Erljiok ere bai. Historialariek paper-agiri eta aztarna arkeologiko ahalik zaharrenak bilatzen dituzte beti.

Kristautzeari buruz, lehenengo eta behin, iturri literarioak bilatu dira, eta aurkitutakoaz luze hitz egin izan da. Ahalegin horretan, E. Mañarikua izan dugu azken hamarkadetakoa maisu ezaguna, eta gogoan hartu behar da hark utzi zigun azken sintesia, Gasteizko Kongresu batean azaldua (1981). Orain, historialari honen lanaz jabetu nahi duenak, nahikoa du ondoko liburu honetara jotzea: *Estudios acerca de la cristianización del País Vasco* (Bilbo: Labayru), hor dago dena bilduta. Mañarikua baskoien kristautze goiztar eta mugatu baten aldekoa ageri zaigu.

J. M. Barandiaranek indusketak egin eta hipotesi zehurrak erakutsi zituen 1920ko hamarkada hasieran, gerora behin eta berriz osatualdatuz eraman zituenak, artean kristautze goiz-

tar baten alde. M. Lekuonak, Mañarikua izan zuen bere iritzietan gidari, eta hipotesi jakin bat indartu nahi izan zuen, alegia, erromaniko aurreko eraikinen froga galduta genuela, zurezkoak omen zirelako desagertuta; baina ezin dugula esan halakorik egon ez zenik. Hipotesi arkeologiko honek indarra galdua du geroztik (Gz. Durana, 1996). Horien ondoan, kristautze atzeratu baten aldeko iritzia agertu dituzte kanpoko ingurutik euskal kristautze orokorrak mintzatu diren batzuek (García Villada, Orlandis, Barbero-Vigil edo Mz. Díaz).

1980 ingurutik honakoan, batez ere arkeologiari utzi zaio hitz egiten. A. Azkarate-ren lana aipatu behar dugu, egin dituen indusketengatik eta argitara eman dituen ikerlanengatik (1988), eta Arkeologiak zinez topatu eta ezagutzen duenaz baliaturik burututako lana izan da geroztik egin dena.

Iturri literarioetako albisteak eta aztarna arkeologikoetan aurkitu direnak, guztiak batera, gogoan hartuta heldu nahi zaio orain kristautasunarekiko gogoeta historikoari. Sintesi berri baten bila, benetan aintzakotzat hartzekoak dira kristautzearen arazo honi K. Larrañagak eskaini dizkion orrialde aberatsak (2007), eta entzutekoak dira bere aldetik J. Urkizak egin dituen ohar-ak (1988-1989).

Kristautzea nondik nora, eta noraino?

Gasteiz ondoko Iruñakoaz (*Veleia*) adostasunik lortzen ez den bitartean, garaiko Euskal Herriko



lehen kristauak –eta, dirudienez, ez gutxi– baskoien artean ditugu, Ebro-aldean, zehazkiago Calahorra eta inguruetan, beharbada xumeki IV. mende-ataritik aurrera. Baina, artean, gizarte oso baten kristautzea urrun ageri da, nahiz eta VI-VI. mendeetan Akitanian eta Hegoaldean gotzain-degiak agertu ziren.

Azken mende horietan, ordea, Erromako Inperio kristaua erori da eta euskoek ez dute harreman onik Hispaniako nagusi bisigodoekin (476-711). Horri guztiari kristautzeko beste erresistentzia bat gehitzen zitzaion, hemen eta Europan: landerrietako betiko jentiltasuna, hirieta-tik kanpoko gizon-emakumeena esan nahi dut. Ez dago gogoratu besterik indarrean zegoen jentiltasunaz Bragako San Martinek (574) edo Toledoko Kontzilioek esandakoak (681, 693). Europan bezala Euskal Herrian ere kristauak eta jentilak elkarren ondoan bizitzeko parada izan zuten luzarozan.

Gauzak horren guztiaren aurreagotik hartuta eta IV. mendeaz ari garela, zaila da baskoien kristautze orokorrak deus segururik esatea. Hurrengo mendean, ordea, Ebro-aldeko hiri erromatarretan kristautasunak aurrerapen onak lortu zituen, berorietatik iparralderantz baskoien kristautzea askoz apalagoa zen bitartean (mendialdean eta). VI. mendearen azkenetan agertzen zaigu (589) Iruñeko gotzain-egoitza. Nahikoa berandu, beraz.

Hemen aipatzekoa da eremitismoak lehenengo (VI-VII. mendeetako Araba eta Ebro-aldean) eta Nafarroan berehala zenbait monasterio ederek ezagutu zuten loraldia (IX. mendean). Eliza kristaua bere biziera erakundetzen ari zen, beraz, bat batean kontrako egoera sortu zen arte.

Arabiarrak agertu ziren –arma eta fede– eta parte gureaz (Nafarroako Erribera) eta osorik inguruaz jabetzeko (711). Euskal inguruetan agin-

tari ezagun eta kristaurik zegoenean bazekiten zer egin, lege islamiarrek gogoan hartuta baitzeuzkaten horrelakoak (*dhimmi* deituak ziren horiek), beren eskubide zibil eta erlijiosoak onartuko zitzaizkienak, *mayu* edo jentilei ez bezala. Horra, bada, gurean genuen erlijiotasunaz albiste jakingarria: 816 eta 825ean arabiarrek Araban *mayu*-ak aurkitu zituzten. Ez dakigu, baina, kristauak ala *mayu* edo jentilak ziren gehienak arabiarrek aurkitu zuten Araba hartan.

Hurrengo mendeetan, mairuak atzera egin ahala (X-XI.etan alegia), elizguneak biziki ugaritu ziren Euskal Hegoaldean, auzokoeak, eskualdeko jauntxoek nahiz gotzain eta erregeek sortuta; laster, XI. mende hartan, monasterio nagusi eta berauen mendeko monasterio ttipiak ugaltzen ikusten ditugu.

Kristautzea bere lehen heldutasunerira iritsi zela ematen du: jada zoko guztietara iritsi zen VIII-IX. mendeetan, eta herri kristautu horri eliz gobernu-egituraren bat eman behar zitzaion, horretan lagunduko zuten aipatutako elizguneek.

Elizguneen sarea juridikoki bere gisara libreki moldatuta zegoen hasiera batean, eta XI. mendetik, Gregorio VII.ak Erregeekin elkarturik ezarri zuen Erreformak ekarriko zuen elizgune haietako gero eta gehiago parrokia bihurtzea eta hauek arau eta lege berriak jartzea, ahal izan zen neurrian herriek elizen gain zuten kudeaketa-eskubidea galdu gabe.

Arte erromanikoaren garaietan gaude (XI-XII. mendeak), eta lehen milakadari gaina hartuta, indar berriekin ekiten dio Europak etorkizunari. Elizak ere politika berriak ditu. Euskal Elizak orduan eta berehala hartu zuen XIX. menderaino funtsezko aldaketarik gabe iraungo zuen antolaera, erabat kristautua zen herriaren gobernua aurrera eramanez ahal izateko.

Joseba Intxausti